III. ERANSKINA
HAUTATUTAKO PROIEKTUAREN FITXA TEKNIKOA (PUBLIZITATEA EMATEKO)

LAGUNTZA MODALITATEA	TEKNOLOGOEN PRESTAKUNTZA
PROIEKTUAREN KODEA	T1
TITULUA	EUSKADIKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREKO LEHENTASUNEZKO PATOGENOEN BIOKONTROLERAKO FAGOAK
ZENTROA	AZTI - DERIO
SAILA/ZUZENDARITZA/ARLOA	ELIKAGAIEN KALITATEA, SEGURTASUNA ETA KALTERIK EZA
IKERKETA - TALDEA	BAKTERIOFAGOEN IKERKETA TALDEA – AZTI - DERIO
PROIEKTUKO TUTOREA(K)	DRA. AMAIA LASAGABASTER / DRA. MARIA LAVILLA
PROIEKTUAREN LABURPENA	EUSKAL ELIKAGAIEN SEKTOREAK HAINBAT ERRONKARI EGIN BEHAR DIE AURRE, HALA NOLA KATE OSOAN SEGURTASUN MIKROBIOLOGIKOA MANTENTZEARI. PROIEKTU HAU ERRONKA HORIETAKO BATZUEI ERANTZUTEKO PLANTEATZEN DA; IZAN ERE, HAREN **HELBURU NAGUSIA** FAGOETAN OINARRITUTAKO SOLUZIO BERRITZAILEAK GARATZEA DA, EUSKAL NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KATEAN PATOGENO ZOONOTIKOEN BIOKONTROLERA BIDERATUAK. PROIEKTU HONEN **HELBURU ESPEZIFIKOAK** HONAKO HAUEK IZANGO DIRA: **HE1.** EUSKADIKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIARAKO INTERESEKO BAKTERIA-BILDUMA HANDITZEA. **HE2**. ISOLATUTAKO BAKTERIEN AURKAKO JARDUERA ESPEZIFIKOA DUTEN ETA FENOTIPIKOKI, GENOTIPIKOKI ETA TEKNOLOGIKOKI KARAKTERIZATUTA DAUDEN BAKTERIOFAGOEN BILDUMA ZABALTZEA. **HE3.** ESPEZIFIKOTASUN ETA ERAGINKORTASUN HANDIKO FAGO-FORMULAZIOAK DISEINATZEA ETA OPTIMIZATZEA. **HE4.** APLIKAZIO-ESTRATEGIA SEGURU ETA JASANGARRIAK DISEINATZEA, DAUDEN BESTE KONTROL-NEURRI ETA -TEKNOLOGIA BATZUEN ORDEZKO EDO OSAGARRI GISA. **HE5.** FORMULA BERRIEN ERAGINKORTASUNA ETA SEGURTASUNA EBALUATZEA ELIKAGAIETAN ETA INGURUNE GARRANTZITSUETAN. TRESNA HORIEK, GAINERA, OSASUN BAKARRA (ONE HEALTH) KONTZEPTUAREN BARRUAN KOKATU DAITEZKE, ETA ELIKADURA-INDUSTRIARI, BERE OSOTASUNEAN, INGURUMEN- ETA GIZARTE-JASANGARRITASUNA HOBETZEKO AUKERA EMATEN DIOTE (ANTIMIKROBIANOEKIKO ERRESISTENTZIEN MURRIZKETA ETA GAIXOTASUNEN PREBENTZIOA), BAITA BAKTERIO-PATOGENOEK ERAGINDAKO OSASUN-ALERTEN AURREAN ERRESILIENTZIA HANDITZEKO ERE.
BESTELAKO INFORMAZIOA	SARTZEKO TITULAZIOAK: BIOTEKNOLOGIAKO, MIKROBIOLOGIAKO, BIOLOGIAKO, BIOKIMIKAKO, ELIKAGAIEN ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO, ALBAITARITZAKO EDO FARMAZIAKO GRADUA, EDO BIOOSASUNAREN ETA NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN ARLOEKIN LOTUTAKO BESTE TITULAZIO BATZUK. BEREZIKI BALORATUKO DA MIKROBIOLOGIAKO, ELIKAGAIEN MIKROBIOLOGIAKO, ELIKAGAIEN SEGURTASUNEKO ETA/EDO BIOKONTROL-TRESNETAKO PRESTAKUNTZA OSAGARRIA.
HARREMANETARAKO DATUAK	alasa@azti.es; mlavilla@azti.es